

Bilbon, 2009ko urriaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain, eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, zegozkion gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñederrari; Beñat Oihartzabalek, ahala

Xarles Videgaini; Bernardo Atxagak, ahala Andres. Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala Tx. Peilleni; Pello Salaburuk, ahala Miren Azkarateri; eta Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hiztegi Batuko H-Z arteko zerrendak banatzea. A. Sagarnak azaldu du gaia. Karpetako 2. zenbakiko testua aurrean dela, arteko kronograma eta prozedurari jarraikiz, H-tik M-rainoko hitzak, biak barne, agertzen dira, lehen aldi honetan, oharrak azaroaren 30era arte egiteko. N-tik Z-rainokoak, aldiz, abenduaren azkeneko egin beharko dira.

Oharrak nola egin ere azaldu du, fitxa bat eredutzat jarrita. Zerrenda horiek euskaltzainei eman zaizkie, paperean edo CD batean.

3. Exonomastika. «Europako ibaiak» araugaia aurkeztea.

Alfonso Mujikaren absentziaz, J. L. Lizundiak aurkeztu du araugaiaren lehen atala. Ibai horien artean, aurretik eskualdetzat jada onarturiko batzuen izenak azaltzen dira, bai eta ibai mugakideenak, azken mendean izena aldatuak eta garrantzi historiko-politiko berezia izan dutenak ere, besteak beste. Oharrak azaroaren 20rako bidali behar dira.

4. Orotariko Euskal Hiztegia sarean

A. Sagarnak aurkeztu du eta, jada, sarean dagoen Orotariko Euskal Hiztegiaren erabilera posibleak (erdaratik abiatuz) erakutsi ditu. M. Azkarateren galderari erantzunez, A. Sagarnak hortik informazioa nola deskarga daitekeen azaldu du. J. L. Lizundiak ere galde egin du zerbitzu hau erabilgarria dela jendeari ea nola jakinaraziko zaion. Beroni ere argitasunak eman dizkio A. Sagarnak.

5. Buruorde berriaren hautaketa

Aurreko batzarrean B. Oihartzabalen dimisioa aurkeztu eta onartu zen. Hilabeteke epea pasatu eta hautagaiak aurkezteko epea gaur amaitu da. Euskaltzainburuak, Iparraldekoekin mintzatu ondoren eta X. Videgainen ezintasuna eta sarrera-hitzaldirik eza ikusita, Aurelia Arkotxaren kandidatura aurkeztu du. Boto-tara joanda, honako emaitzak izan dira. Guztira: 28 boto eman dira. Kandidatuaren alde: 18 boto. Boto zuriak: 8. Beraz, A. Arkotxa hautatu da.

6. Esku artekoak

6.1. Euskaltzaindiaren 2008ko oroitidazkia

Euskaltzainen artean joan den urteko Oroitidazkia banatu da.

6.2. Dieten ordainketa

J. L. Lizundiak azaldu duenez, egun gutxi barru dieta guztiak ordainduko dira. Batzuen atzerapena zenbait batzorderen emaitza-txostenen atzerapenagatik gertatu dela argitu du. Egoera ekonomikoa aski larria dela jakinarazi du, ekonomi krisiagatik eta erakunde ordaintzaile batzuen atzerapenagatik. Halere, arduradunekin mintzaten eta haiekin elkartzen saiatzen da Euskaltzaindia problema hori ahalik eta lasterren konpontzeko asmoz. Dena den, jasoriko informazioen arabera, datorren urteari begira, murrizpen nabarmenak izango direla uste du diruzainak. Datorren urtean, gainera, beste hitzarmen bat sinatu beharko dela gogorarazi du.

6.3. Ikurrak banatzea

Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren papar-ikurrak banatu ditu aurreko bileran jaso ez zituzten artean.

6.4. Etorkinen hizkuntza egoera

Andres Iñigok informatu duenez, Euskaltzaindiak, Sustapen Batzordearen esku-tik, azaroaren 20an, goizean eta arratsaldean, Euskaltzaindiaren egoitzan, bere 14. Jardunaldiak antolatuko ditu, *Etorkinak eta euskara* gaiaren inguruan.

6.5. Hurrengo bilera

Donostian izanen da azaroaren 27an, Gipuzkoako Foru Diputazioan.

7. Azken ordukoak

Batzarraren amaieran honako liburu hauek banatu dira euskaltzainen artean:

- *Euskera* 2008, 2.
- *Euskaltzaindia eta Nafarroa* liburuxka.
- *Santiago Ezkerra Beltza: bizitza eta lanak* (Euskaltzainak, 11)
- 2008ko Txomin Agirre Saria: *Ekilibristaren polka*
- 2008ko Felipe Arrese Beitia Saria: *Azazkalak jaten*.

Batzarra arratsaldeko 17:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria